

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

# SALTOKITIK ENPRESARA PROGRAMA



2019



## AURKIBIDEA

- A) ZER DA SALTOKITIK ENPRESARA PROGRAMA?.....2. or
- B) NOLA ANTOLATZEN DA SALTOKITIK ENPRESARA PROGRAMA?.....3. or.
- C) NORENGANA JO BEHAR DUT PROGRAMARI BURUZ INFORMATZEKO ETA PARTE HARTU AHAL IZATEKO? ..... 4. or.

## A) ZER DA SALTOKITIK ENPRESARA PROGRAMA?

- **Zein da programaren helburua?:**

**Saltokitik Enpresara** programaren funtsezko helburua da dendariak enpresa kudeatzeko gaitasuna eta ahalmen enpresariala hobetzea, bere saltokian eguneroko kudeaketa egiteko tresnen eta metodoen bitartez.

**Saltokitik Enpresara** programa **saltokiei laguntzeko eta aplikazio erreala egiteko programa** bat da, zeinean merkatariak tutore baten babesa izango duten, arlo hauetan aurrera egiten eta hobetzen gidatzeko eta laguntzeko: plangintza, kudeaketa ekonomikoa, salmentak, bezeroen kudeaketa, erosketak eta hornitzaileak, marketin eta publizitatea, pertsonen kudeaketa, emaitzak... horretarako tresnak emanez, negozioen praktika onak, adibideak, formatuak, etab., **kokapen lehiakorra, efizientzia enpresariala eta enpresa komertzialaren negozioaren emaitzak hobetzeko.**

- **Nola laguntzen dit Saltokitik Enpresara programak nire negozioan merkatari naizen heinean?**

Programaren bitartez, dendariak **tutore/bideratzaile baten laguntza izango du, dendariari etengabe laguntzeko saltoki batetik enpresa baterako** aldaketan, bere negozioari aurre egiteko ahalmena lortzeko eta aurkitzen dituen arazoak aztertzen eta aurre egiten jakiteko. Lehenetsuna duena, premiazkoa dena eta garrantzitsua dena bereizten jakitea.

Saltokitik Enpresara programaren bitartez, dendariak lan metodoak ezarri ahal izango ditu, tresnak ezagutu, egiteko moduak, eta erlazionaturiko formatuak ezagutu saltoki baten kudeaketan eta eguneroko zereginetan sartzan diren alderdi guztiei buruz: jakitea nola gauden bezeroari, produktuari, merkatuari, lehiakideei, joerei, kudeaketa ekonomikoari buruz (zer informazio behar dugun gure aholkularizatik, kudeaketa ekonomikoaren alderdi nagusiak erabakiak hartzeko...).

- **Nori zuzenduta dago?**

Programan Euskal Autonomia Erkidegoko merkatari guztiak sartu daitezke, saltokian kudeaketarako ekintzak eta tresnak ezagutu eta ezarri behar badituzte, oinarritzko, mailan zein maila ertainean edo aurreratuan, emaitzak hobetzeko eta merkatuan kokapen lehiakorragoa lortzeko.

- **Zenbat irauten du?**

Programa martxoan hasiko da eta azaroan amaituko da.

- **Badu kosturik?**

Programak %100eko diru laguntza du Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritzaren aldetik, EUSKALITekin lankidetzan. Saltokiak ez du zenbateko ekonomikorik jarri behar.



## **B) NOLA EGITURATZEN DA SALTOKITIK ENPRESARA PROGRAMA?**

**Saltokitik Enpresara** programa 2 ziklotan egituratzen da, saltokien kudeaketa mailaren arabera:

- 1. **zikloa:** lehenago kudeaketa tresnak landu ez dituzten edo antzeko programetan parte hartu ez duten saltokiak.
- 2. **zikloa:** aurreko urteetan Saltokitik Enpresara 1. zikloko kudeaketa tresnak landu dituzten saltokiak bakarrik.

**Metodologia:** Programan zehar uztartzen dira:

- Abiapuntua aurretzeko diagnostiko bat da (espezialista batek egina), negozioaren kudeaketaren egungo egoera ezagutzeko eta, horrela, kudeaketa tresnen etorkizuneko aplikazio praktikoa egokitzeko.
- Prestakuntza saioak taldeka ikasgelan: 2 orduko saio presentzialak, hamabostean behin, kudeaketaren inguruko gai jakin bat lantzeko. Talde bakoitzak taldearen saio guztiak emango dituen tutore bat izango du, kudeaketan aditua.
- Aplikazio praktikoa saltokian: taldeko saio presentzial bakoitzaren ondoren, derrigorrezkoa saltoki bakoitzak aplikazio errealeko lan bat egitea bere dendan, saioan landutako gaiari buruz.
- Laguntza indibidualizatua saltokian bertan: Talde bakoitzeko tutoreak, taldeko saio bakoitzaren ondoren, saioetan landutako edukiak, ariketak eta tresnak inplementatzen lagunduko du, modu indibidualean.
- Programan zehar adibideak emango dira eta taldeko saioetan landutakoa partekatuko da.

Egoeraren diagnostiko indibiduala	6 saio presentzial taldeka	Tutorearen 6 laguntza indibidualizatu (saltoki bakoitzarekin adostutako ordutegian)
1 ordu saltokiko	2 orduko saioak (eguerdiko ordutegian)	2 orduko 6 laguntza saltokiko

## **C) NORENGANA JO BEHAR DUT PROGRAMARI BURUZ INFORMATZEKO ETA PARTE HARTU AHAL IZATEKO?**

Programari buruzko informazioa jasotzeko CECOBIra zuzendu: 94.400.28.00 edo [info@cecobi.es](mailto:info@cecobi.es)



**INFORMAZIOA NON JASO**

**EUSKALIT:**

**Harremanak:** Natalia Fernandez, Nerea Hormaetxe, Ainhoa Egaña

**E-mails:** [nfernandez@euskalit.net](mailto:nfernandez@euskalit.net), [nhormaetxe@euskalit.net](mailto:nhormaetxe@euskalit.net), [aegana@euskalit.net](mailto:aegana@euskalit.net)

**Telefonoa:** 94 420 98 55

HOJA DE INSCRIPCIÓN PARA PARTICIPAR EN EL PROGRAMA **SALTOKITIK ENPRESARA**

Saltokiaren izena / Nombre del Comercio			
Saltokiaren Arduradunaren izena eta abizenak / Nombre y apellidos de Responsable del Comercio			
Harremanaterako Telefonoa / Teléfono de contacto			
E-maila / Email			
Helbidea/Domicilio			
Posta kodea / C.P.		Udalerria / Municipio	
Langileen Kopurua / Nº de empleados:		BAI/SI	<input type="checkbox"/>
Saltokiak UNE 175001 agiria ba al dauka / Tiene el comercio la UNE 175001		EZ/NO	<input type="checkbox"/>
1Partehartzailearen izen-abizenak eta emaila/ Nombre-Apellidos y email del Participante1:			
2Partehartzailearen izen-abizenak eta emaila/ Nombre-Apellidos y email del Participante2:			
<p><b>Programan parte hartzeko betebeharrak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arduraduna edo izendatzen den pertsona, programan zehar landuko diren kudeaketarako tresnak saltokian aplikatzen konprometitzen da.</li> <li>- "Txoko" web erreminta erabiliz beste saltokiekin praktika onak elkarbanatzea.</li> <li>- Programako beste saltoki partehartzaileen gaineko informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea.</li> <li>- Taldeko saio presentzialetara joatea.</li> <li>- Programan zehar lantzen diren egitekoak burutzea.</li> </ul>	<p><b>Obligaciones para participar en el programa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- El responsable o la persona designada se compromete a aplicar en su comercio las herramientas de gestión que se irán desarrollando durante el programa.</li> <li>- Compartir las buenas prácticas entre los comercios del grupo mediante la herramienta web "Txoko".</li> <li>- Confidencialidad en relación a la información que se conozca de otros comercios participantes en el Programa.</li> <li>- Asistencia a las sesiones presenciales grupales.</li> <li>- Realizar las tareas que se trabajen durante el programa.</li> </ul>		

Sinadura / Firma

<p><b>Informazio klausula</b></p> <p>Pertsona fisikoen babesari dagokionez, datu pertsonalak eta zirkulazio libreak buruzko (UE) 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 13 artikulua xedatutakoa betez, aurrerantzean (RGPPD), EUSKALITek honako informazio hau ematen du zure datu pertsonalen tratamenduari buruz:</p> <p>Identifikazio Arduraduna: FUNDACIÓN VASCA PARA EL FOMENTO DE LA CALIDAD-EUSKALIT (<a href="http://www.euskalit.net">www.euskalit.net</a>)</p> <p><input type="checkbox"/> Baimena ematen dut EUSKALITek nire datuak trata ditzan, prestakuntza ikastaroetan izena emateko eta parte har dezakedan lantaldeak kudeatzeko.</p> <p>EUSKALITek jakinarazpen promozionalak bidali ahal izango dizkizu bere jardueri edo horiei lotutako beste batzuei buruz.</p> <p>Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkatu eta garraiatzeko eskubideak balia ditzakezu, helbide honetara idatziz: <a href="mailto:lop@euskalit.net">lop@euskalit.net</a></p> <p>Mesedez, bisitatu pribatutasun politika, <a href="http://www.euskalit.net/privacidad">www.euskalit.net/privacidad</a>, EUSKALITek zure datuak tratatzeko dituen baldintzez eta zure eskubideez informatua egoteko.</p>	<p><b>Cláusula Informativa</b></p> <p>De conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 del Reglamento (UE) 2016/679, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante, RGPD), EUSKALIT facilita la siguiente información con relación al tratamiento de sus datos personales:</p> <p>Identificación Responsable: FUNDACIÓN VASCA PARA EL FOMENTO DE LA CALIDAD-EUSKALIT (<a href="http://www.euskalit.net">www.euskalit.net</a>)</p> <p><input type="checkbox"/> Presto mi consentimiento para que mis datos sean tratados por EUSKALIT para la inscripción a cursos de formación y la gestión de los grupos de trabajo que pueda participar.</p> <p>EUSKALIT podrá enviarle comunicaciones en relación a estas actividades y otras vinculadas de índole promocional.</p> <p>Puede ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación del tratamiento, oposición y portabilidad de los datos dirigiéndose mediante escrito a <a href="mailto:lop@euskalit.net">lop@euskalit.net</a>.</p> <p>Le rogamos visite la política de privacidad en <a href="http://www.euskalit.net/privacidad">www.euskalit.net/privacidad</a> para estar informado de las condiciones en las que EUSKALIT trata sus datos y acerca de sus derechos.</p>
--	---



Programa  
Saltokitik  
Enpresara

gub<sup>er</sup>n<sup>u</sup>aren  
er<sup>o</sup>l<sup>u</sup>gar<sup>u</sup>ak

## ZER DA SALTOKITIK ENPRESARA?

Lanerako metodoak saltokian aplikatzeko **laguntzako programa**, saltokiaren lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzak **%100ean diruz lagunduta**.

## ZER LORTZEN DA PROGRAMA HONEKIN?

-**Saltokia** nola dagoen **aztertzea**: bezeroarekiko, produktuarekiko, merkatuarekiko. lehiakideekiko eta gaur eguneko tendentziekiko.

-Kudeaketarako **tresnak ezartzea**: egiteko erak, tresnak, formatuak, praktika onak.

-Negozioaren kudeaketari aurre egiteko eta erabakiak hartzeko **ezagutza eta gaitasun handiagoa** bereganatzea.

**EDUKIAK**: taldeari **egokitutako edukiak** eta, besteak beste:

1. Plangintza
2. Instalakuntzak eta ekipamendua
3. Bezeroak, Marketing eta Salmentak
4. Kudeaketa ekonomikoa
5. Erosketak eta Hornitzaileak
6. Zerbitzuak, ekintzak eta emaitzak
7. Pertsonak

# Saltokitik Enpresara 2019

## NORI DAGO ZUZENDUTA?

Euskal Herriko saltokientzat (250 langile gehienez) .

## PROGRAMAREN EGITURA

- **Ikasketa praktikoko taldeko saioak**
- **Saio pertsonalizatuak** saltokian bertan
- Jarraikako **adituen laguntza**

## NOIZ?

2019ko **martxotik azarora** arte, zure udalerrian/zonaldean

Egutegia: **Saltokiari egokitua**

Taldeko saioak: **Guztira 6 saio izango dira**

Laguntza saio indibidualak: **Guztira 6 saio indibidualak izango dira**

## IZENA EMAN:

**Otsailaren 28a** baino lehen

**TOKIA**: izen-emate orria [info@cecobi.es](mailto:info@cecobi.es) posta elektronikora bidali



Bizkaiko Merkataritzako | Confederación Empresarial  
Enpresari Konfederazioa | de Comercio de Bizkaia